



ENRAIZA DERECHOS 02 KOADERNOA:

GARAPEN JASANGARRIA SENEGALEN

2018az geroztik, hainbat garapen-prozesu bultzatu ditu Enraíza Derechos erakundeak. Garapen-prozesu horien helburu nagusia da Niomré udalerriko herritarren **elikadurarako eskubidea eta emakume nekazarien garapen ekonomiko jasangarria sustatzea**. Herritarrak oso egoera zaurgarrian daude elikagaien segurtasunik ezaren ondorioz. Hondamendi naturalek areagotu egin dute egoera hori, hala nola klima-aldaketak larriagotutako lehortee eta uholdeek, bai eta hainbat krisi ekonomikorik eta finantzariok ere.

Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzako proiektu bat jarri zen abian, ingurumen-jasangarritasuna eta genero-ekitatea sustatzen dituen. Hiru lan-estrategia nagusi ditu proiektuak:

EKOIZPEN AGROEKOLOGIKOA

Bi erronka handi ditu Niomré udalerriko nekazaritza-inguruneak: lurzoru-mota, humus gutxi eta ura atxikitzeko ahalmen txikia duena, eta ur-eskasia,

batez ere hilabete lehorretan. Arazo horiei aurre egiteko, nekazaritza-ekoizpena indartzeko hainbat ekintza egin dira. Teknika agroekologikoak aplikatu dira elikagaien eskuragarritasuna eta dibertsifikazioa bermatzeko.

Lehenik eta behin, **baratze-lursailak** ezarri dira, **hormekin, haize-babesekin eta fruta-arbolekin** (limoiendoak eta papaiak) hornituak, laboreak haize bortitzetatik eta lurzorua degradazioetik babesteko. Gainera, ura eskuratzeko eta ureztatzeko 3 sistema hobetu ezarri dira: (i) **Tantakako ureztatzeko-sistema**, landatutako baratze-barietateen arabera instalatua, uholde-mekanismoek eta drainatze-mekanismoek ura behar bezala kudeatu eta aurreztu ahal izateko; (ii) **Eguzki-energiaren elikatutako ponpak**, eremura egokituak eta 20 urte inguruko iraupena duten plakekin, baratzezainek eguzki-energia garbiaren eta fotovoltaiakoaren bidez ureztatzeko ura izan dezaten bermatzeko; eta (iii) 80 m arteko sakonerako **ur-putzu berriak zulatzea**, ur-emari nahikoa eta kalitatezkoa ziurtatzeko. Ekintza horiei esker, 8 barazki-mota ekoiztea lortu da 6 komunitatetan, fruta-arbolekin batera. Aurretik, udalerrian ez zen barazkirik produzitzen, zerealak bakarrik (artatxikia eta niebea), eurite-garaian landatzen zirenak.

Gainera, egiaztatu da ureztatze-laboreek eta ur-eskuragarritasunak ekarpen positiboa egiten diotela inguruneari eta biodibertsitateari, eta zuhaitz eta barazkien bitartez mikropaisaia berdea garatzen laguntzen dute. Gainera, lur biziagoa sortzen da ustiatu gabeko azalera lehorrekin alderatuta.

Bigarrenik, materia organikoz egindako **ongarri naturala erabiltzea sustatu da**, lurzorua egitura zuzentzeko eta higaduraren eta agortzearen aurka babesteko. Gainera, **baliabide naturalak** (ganadu-hondakinak, lastoa, errautsak eta arrain-hondakinak) **berreskuratzea eta birziklatzea** bultzatu da, pestizida kimiko kutsatzaileekiko mendekotasuna murrizteko, halakoak erabili ohi baitzituzten nekazariek.

Hirugarrenik, **ziklo laburreko niebe-barietateak sartu dira**, 45 egunen buruan heltzen direnak, familiek elikadura egokia izateko dituzten zailtasunak arintzeko. Horretarako, haziak erosi eta banatu dira. Horri esker, baliabiderik ez zuten emakumeek, batez ere, kalitatezko haziak eskuratu ahal izan dituzte, uztak hobetzeaz gain. Era berean, lehorte luzeetan edo bestelako zailtasunak daudenean ekoizteko aukera ematen du ziklo laburreko barietateak.

Azkenik, **prestakuntza eman da ekoizpen agroekologikoko** tekniketan eta laborantzako jardunbide egokietan, elkartrukeen eta gaikuntzen bidez, bai eta hainbat nekazaritza-kanpaina egin ere. Horrek prozesuaren jasagarritasuna bermatzen du eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du epe luzera.

Nekazaritza jasangarriko jardunbideak ezartzeari esker, herritarren elikadura-beharrak arindu ahal izan dira, eta, aldi berean, ingurumenaren kontserbazioa sustatu eta inguruko familien epe luzeko bizi-kalitatea hobetzen lagundu da. Zehazki, 4 baratze berri ezartzea lortu da, bakoitza hektarea batekoa, 4 komunitate handienetan, eta hamar mila biztanle ingururi ekarri die onura.

NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK ERALDATZEA ETA KONTSERBATZEA

Enraiza Derechos erakundeak diagnostikoa egin ondoren, biztanleen beharrak identifikatu ziren. Horien artean zeuden elikagaien eraldaketari buruzko ezagutza teknikorik eza eta prozesu horiek aurrera eramateko material eta tresna egokien eskasia.

Behar horiei aurre egiteko, udalerriko **emakumeei zuzendutako trebakuntzak egin dira, tokiko zerealak eta barazkiak eraldatzeko eta kontserbatzeko teknikak** oinarri hartuta, zukuak eta ziropak, niebe-irina eta irin aberastua egiteko, besteak beste.

Gainera, **kontabilitate-kudeaketan trebakuntzak** eskaini dira transformazio-unitateen eta baratzeen jarraipena egiteko, bai eta beste edozein jarduera ekonomikoren jarraipena egiteko ere.

Esku-hartze horiei esker, **lan-aukera berriak sortu dira**: bi emakume arduratzen dira errota etengabe erabiltzeaz, eta beste 30 emakume zerealak prozesatzen aritzen dira, 12 talde txikitan antolatuak eta txandaka. Emaizta gisa, hilean 800 euro inguruko irabaziak sortzea lortu da, eta 12 emakume-taldearen artean ekitatez banatzen dira irabazi horiek. Gainera, elikagaien eskuragarritasuna nabarmen hobetu da, eta horrek elikadura hobe eta komunitatearentzako tokiko produktu gehiago izatea bermatu du.



Zerealak lehortzeko mahaia, modu naturalean eta eguzkitan eta ohialez babestuak eraldatuak.

Materialen eta erreminten hornidurari dagokionez, **produktuak eraldatzeko beharrezko ekipamendua erosi da**, honako hauek barne:

- Artatzikiari eta niebeari azala kentzeko eta alea bereizteko errotak. Alea estaltzen duen azal mehea kendu eta alea ehotzen da irina egiteko, eta, irin horrekin produktu deribatuak egiten dituzte.
- Eguzki-lehorgailuak eta butano-gas bidezkoak, tratamendu-ahalmen handikoak. Haiei esker, prozesu tekniko baten bidez lehortzen dira produktuak eta ez da kalitatea galtzen.

Garbitzeko ontziak, motrailuak, baheak, inbutuak, koilarak, potoak, eskularruak eta maskarak ere eman zaizkie, besteak beste. Era berean, paper birziklagarriko eta biodegradagarriko poltsak, etiketak eta logoak erosi dira, FRA baimena lortuta. Elikagaiak saltzeko eta merkaturatzeko arau teknikoak eta higienikoak betetzen direla ziurtatzen du baimen horrek. Guztira, 6 transformazio-biltegi hornitu dira.

Azkenik, **merkaturatze-espazioak** eraiki dira eraldatze-unitateen inguruan, besteak beste, denda bat eta produktuak lehortzeko eta tratatzeko gune gehigarri estaliak. Gune horiek **emakumeek bilerak egiteko eta atsedan hartzeko lekua** ere eskaintzen dute, eta, horrela, gizarte-kohesioa indartzen da.

Tokiko nekazaritza-produktuen eraldaketa eta kontserbazio horri esker, balio handiagoa eman zaie laboreei, diru-sarrera handiagoak dituzte nekazariak, eta murriztu egin dira desnutrizioari eta pobrezia buruzko datuak.



Lurzorua oinarritzko prestaketa, baratzean hazitegiak instalatzeko.

EMAKUMEEN ELKARTEAK ETA SARE KOMUNALA INDARTZEA

Niomren, landa-eremuetako emakumeek beste erronka batzuei ere egin behar diete aurre beren eskubideak erabat baliatzeko, gizonekin alderatuta; izan ere, baliabide naturalak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera mugatua dute, ordezkartza eta parte-hartze txikia erabaki publikoak hartzeko espazioetan, karga handiagoa etxeko lanetan eta prestakuntza tekniko urria. Gainera, tokiko eta familiako garapenari eta ekonomiari ekarpena egiten dieten arren, emakumeek, oro har, ez dituzte kontrolatzen sortzen dituzten onura ekonomikoak.

Egoera horri aurre egiteko eta dauden desberdintasunak zuzentzeko, Enraiza Derechos erakundearen esku-hartzearen barruan ekintza espezifikoak egin dira emakumeek beren komunitateetan duten posizioa eta egoera hobetzeko eta, hala, botere-harremanak eraldatzeko. Ekimenaren helburua da emakume nekazarien autonomia ekonomikoa sustatzea, asoziatibitatea bultzatuta (hiru mailatan egituratua), eta beren gaitasunak indartzeko gaitz emanda.

Lehenik eta behin, **tokiko plataforma** sortzea sustatu da. Plataforma hori emakumeen oinarritzko erakundeek osatu dute, eta, hasiera batean, Enraiza Derechos erakundearen laguntzarekin koordinatu eta dinamizatu dira, sinergia eta eragin handiagoa lortzeko herri- eta eskualde-mailan.

Bigarrenik, **plataforma komunala** bultzatu da, emakumeen produktuen trukea eta merkaturatzea sustatzeko. Horren harira, Enraiza Derechos erakundeak topaketak antolatu ditu tokiko plataformen arteko egitura eta koordinazioa hobetzeko, baina, gero, plataforma komunalak berak hartu du lidergoa eta autokudeatu ditu bere jarduerak. Landa-garapeneko prozesuaren indarguneetako bat bihurtu da hitzarmen-gune hori, sektoreen arteko (emakume nekazariak eta eraldatzaileak) eta komunitateren arteko trukea errazten baitu, eta, hala, merkatuetan sartzeko aukera handiagoak ematen zaizkie emakumeei. Gainera, espazio horrek emakumeen parte-hartze eta eragin handiagoa sustatzen du erabaki publikoak hartzeko guneetan eta beren komunitateen garapen sozioekonomikoan.

Hirugarrenik, eta nazio mailan, **trukeak egin dira Dakarreko plataformekin**. Truke horien bidez, tokiko plataformen eta plataforma komunalaren emakume liderrek Dakar hiriburuko plataformak bisitatzen dituzte eta haiekin esperientziak partekatzen dituzte, loturak sortuz eta aukerak zabalduz Niomreko emakumeentzat nahiz Dakarreko plataformentzat, elkarlanari eta kate-lanari dagokionez.

Gainera, **elikadurarako eta genero-berdintasunerako giza eskubideari buruzko prestakuntzak** egin dira, gai horien inguruan **Senegalen indarrean dauden politikak** ezagutzea barne. Horrek kolektiboa ahalduntzen laguntzen du, bere eskubideak exiji ditzaten. Nutrizioaren oinarriko printzipioak, elikagai-taldeak eta horiek organismoan duten funtzioa, askotariko elikaduraren onurak eta desnutrizioaren arrazoiak jorratu dira saio horietan. Era berean, sakondu egin da generoaren kontzeptuan,

behar praktikoetan eta interes estrategikoetan, indarkeria motetan, lidergoan eta tokiko, eskualdeko eta nazioko gobernuekin eragin-lana egitearen garrantzian.

Azkenik, **beren erakundearen barne-kudeaketara eta merkaturatzera bideratutako trebakuntzak** eman dira, emakumeek beren ekinbide ekonomikoak (ekimenak) kudeatzeko eta beren produktuak sustatu, saldu eta banatzeko (merkaturatzea) dituzten gaitasunak indartzeko.

Enraiza Derechos Senegalgo hainbat eskualdetan lan egin du 2016tik, Espainiako estatuko beste GGKE batzuekin eta tokiko erakunde bazkideekin lankidetzan, hala nola Enda Graf Sahel, SAPOP (Structure d'Appui aux Organisations Professionnelles et Paysannes) eta ONG3D. 2018tik Niomré-n egiten duen lanaren eta

presentziaren bidez, elikadura eta garapen bidezkoa eta iraunkorra lortzen lagundu nahi du, giza eskubideen, genero-berdintasunaren eta ingurumen-iraunkortasunaren ikuspegitik, emakumeen eta gazteen eskubideak sustatuz eta gizarte zibilak bere eskubideak eraginean izateko eta eraginkortasunez baliatzeko dituen gaitasunak indartuz.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Proiektuak **lortutako** inaktuak Nazio Batuen **2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)** betetzen laguntzen dute:

1. GJH eta 2. GJH: nekazaritza-praktika berriei esker elikagai-ekoizpen handiagoa eta anitzagoa sortu da nekazarien familientzat, dieta elikagarriagoa eta osasuntsuagoa lortzen laguntzen duena, bereziki garrantzitsua haurrentzat, haurdun edo bularra ematen ari diren emakumeentzat eta hirugarren adineko pertsonentzat. Gainera, uztaren eta eraldatutako produktuen zati bat salmentara bidera daiteke, diru-sarrerak hobetzeko.

5. GJH eta 10. GJH: emakume nekazarien ezagutzak eta gaitasunak indartzeari eta nekazaritza-produktibitatea hobetzeko teknikak sartzeari esker emakumeen ahalduntze ekonomiko eta sozialean aurrera egitea lortu da.

8. GJHak eta 9. GJHak: ureztatzeko azpiegiturak, tresnak, nekazaritzako teknikak eta merkaturatzeko guneak sartzek nekazarien familien errendimendu ekonomikoa eta lan-baldintzak hobetzea ekarri du.

12. GJH eta 13. GJH: nekazaritza-ekoizpenak jardunbide iraunkorrak barneratzen ditu orain, hala nola ureztatze eraginkorra eta laboreen dibertsifikazioa, lurzoruen degradazioa eta ugalkortasun-galera saihestuz, ingurune naturala birsortuz eta biztanleriaren erresilientzia eta klima-aldaketara egokitzeko gaitasuna hobetzen lagunduz.

17. GJH: landako eta hiriko emakumeen elkarleen arteko aliantzak eta koordinazioak eraginkorrak egiten ditu emakumeen eskubideen eragin- eta galdagarritasun-prozesuak, eta aukera ematen du eztabaida- eta erabaki-gune publikoetan presentzia handiagoa izateko.

*“Pobreziaren aurkako borran tokiko ingurumen-kudeaketa eta kudeaketa globaleko esperientzien bitartez Gipuzkoa ekosozialki eraldatzen” (2022 ERAL 0006-01) proiektuaren hezkuntza-materiala. Zabalketa Elkartek eta Behar Bidasoak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.*

Egileak: Enraiza Derechos eta Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Enraiza Derechos

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina L.G. BI 765-2023

Enraiza Derechos eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gatzeleraz eta euskeraz:
www.enraizaderechos.org
www.zabalketa.org

